



## TUTORETZA PLANA

1. TUTORETZAREN HELBURUA
2. TUTOREAREN FUNTZIOAK
  - Ikasle bakoitzari dagokionez
  - Ikasle taldeari dagokionez
  - Familiei dagokienez
  - Irakasleei dagokienez
3. TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK
  - Ikasten ikasteko gaitasuna
  - Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
  - gizarte- eta hiritar-gaitasuna
4. TUTORETZA BURUTZEKO ESPARRUAK
5. PLANGINTZA
6. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

San Frantzisko Herri Ikastetxea  
Bermeo





antolatuko da. Gure informazioa eta gurasoek ematen digutena bat eginez ikaslearen hobetze prozesuan baliogarri izan daitezkeen aukerak edo estrategiak planteatuko ditugu eta elkarrekin konpromisoak hartzen saiatuko gara. Behar izanez gero, beste irakasleren bat inplikatuko dugu

Elkarrizketa burutzeko baldintza egokienak bilatzen saiatuko gara

### **Irakasleei dagokienez**

Bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan.

Astero, sektore batzarrak egingo dira, ikasle bakoitzaren ikas-prozesua aztertu, baloratu eta eskuhartzea adosten da asteroko bilera hauetan. Ikaslearen beharrak atzeman behar dituzte eta hauei aurre egiteko laguntzak ipiniko dituzte. Gure eskuhartzea etengabe baloratuko da. Ikaslearen promozioaz arduratuko da, bai eta ziklo artean ikasturte hasieran izan behar den informazioaren transmisioan.

Bilera horietaz aparte Tutoreek hiru bilera egin beharko dituzte gutxienez ikasturteko, bere taldeko irakasleekin, ebaluazio-saioak.

Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea curriculum-egokitzapenak, hezkuntzan berariaz esku hartzeko proiektuak, curriculum-aniztasuneko programak, premia bereziak dituzten ikasleentzako errefortzu-jarduerak eta haien hezkuntzan esku hartzeko jarduerak.

Ikasleen ikasketa-zailtasun orokorrenei erantzutea, eta, ahal izanez gero, aurre hartzea, programazioari beharrezko egokitzapenak eginez, eta banakako hezkuntza-premiei ere erantzutea, horrela, beharra ikusiz gero, curriculum-egokitzapena egiteko.

Oso garrantzitsua da ABZko irakasleek egiten duten lana, behar bereziak antzemateko, kasu horien azterketa egiteko, laguntza (gelan eta gelatik kanpo) emateko, jarraipena egiteko eta eskolatik kanpoko erakunde eta espezialistekin harremanetan jartzeko.

Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta, irakasle-taldearen aholkularitzarekin, eskola-orientazioko banakako txostena egitea, familiak jakinaren gainean jartzeko eta ikasleak orientatzeko. (Txosten hori behin egingo da gutxienez Lehen Hezkuntza amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzean ere; besteak beste, zikloa edo maila ez gainditzean. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira. Lehen Hezkuntza bukatzean egingo den banakako txostenak alderdi hauek erakutsiko ditu, gutxienez: ikasketak eskuratzeko maila —batez ere, ikasle bakoitzaren hezkuntza-aurrerapenean eragin handiena dutenak eskuratzeko maila— eta banakako arreta bermatzeko garrantzitsutzat hartzen diren gainerako alderdiak ere). 23. artikulua, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumaren Dekretua.



### 3.TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

tutoretzak berariaz landuko dituen gaitasunak 3 dira:

#### **Ikasten ikasteko gaitasuna:**

Gaitasun hau lortzea zera suposatzen du: ikasleak ikasten ikas dezan, norberaren gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzeko; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-esperientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean.

Hau lantzeko banakako tutoretza esparrua dugu, adimen anitzak kontutan hartuz.

#### **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna izateko, ikasleak sormenez, konfiantzaz, arduraz eta sen kritikoz sortu, abian jarri, garatu eta ebaluatu behar ditu ekintza edo proiektu indibidualak nahiz kolektiboak.

#### **Gizarte- eta hiritar-gaitasuna**

Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzaz-jarduerak egiteko, bizikidetzaz lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte pluralean erabiltzeko.

### 4.TUTORETZA BURUTZEKO ESPARRUAK

**Talde handiko saioak:** ez dugu berdin jokatzeko Haur Hezkuntzan eta Lehenean.

**Haur Hezkuntzan** ez da berariazko saiorik agertzen; saio kolektiboetan hitz egiten da zenbait gai buruz: eskola eta etxe kontuak, zaletasunak, bere sentipenak... eta beste gai batzuk tratatzen dira.

Irakaslearen eskuhartzea garrantzizkoa da solas hauetan. Jarrera errezeptiboa erakutsiko du gertaeren aurrean sortzen diren gaiak jasota: Hauek gero ikasleen aurrean jarriko ditu, iritzia eman eta bere sentimenduak azalera ditzaten. Lagundu egingo zaio ikasleari sentimenduei izena jartzen.

**Lehen Hezkuntzan** berariazko tutoretza-saio bat agertzen da ordutegian. Hauetan taldearen errealitatea aztertzen dugu, harremanak ikertu, komunikazioa landu, egoera pertsonalak agerian jarri... Hauez gain, auto-ezagutzara bideraturiko hainbat teknika eta joko proposatzen eta gizarteko gai eta arazoak tratatzen dira, hauen aurrean jarrera positiboa ager dezaten.

Etapa honetako gaiak zikloka banatu ditugu eta multzoka antolatu: eskolako gai funtzionalak (arauak, ohiturak...), harremanezkoak, sentimenduak azalertzeko materialak, gizarte-gaiak (kontsumoa, euskara, ingurumena...).

Saio hauek burutzeko (mundilab/tut plana/lagunekin baretzean) baliabide edo euskarri



fisiko ezberdinak erabiltzen dira: ipuinak, bideo dokumentalak, elkarlanerako jolasak, esketxak, dantzak, marrazkiak, fitxak, ideiak edo akordioak jasota.

### Tutoretza-jarduera geletan

Gure gelen eraketak, aktibitateak, adinen nahasketak, eta, azken batean, gure ikasteko moduak sentimenduak loratzen laguntzen eta harreman ezberdinak bultzarazten ditu. Hortaz, momentu eta aukera asko ditu irakasleak eskuhartzeko. Ikaslearen pista franko aurki ditzake geletan eta ekimen hauetan guztietan: Informazio hau jaso eta gero, talde handiko tutoretza saioetan, lantzeko. Ez dugu zertan jolasak asmatu beharrik, eskura baititugu egoera errealak.

Irakasleak datuak jasotzeko behaketa fitxa erabiltzen du eta ikasleak auto-ebaluaketarako orrian idazten ditu balorazioak. Bi hauek tresna ederrak dira harremanak aztertu eta hobetzeko.

### Egoera anitzetan eskuhartzea

Jolastokia, liburutegia, komunak, irakasle berri baten etorrera... hauek guztiak adi egon beharreko egoerak dira. Logikoki, hauen ardura nagusia bertan dagoen irakasleari edo helduari badagokio, arazo larrien aurrean (errespetu falta, kasurik ez egitea, jarrera bortitza...). tutorearekin kontatuko da, informazio pasako zaio, beharrezko hausnarketak burutu eta erabakiak hartu daitezten. Dena den oso inportantea momentuan eskuhartzea, eta gauzak areago joanda martxan jarriko lirarteke beste protokoloa.

**Banan-banako tutoretza:** Ikaslearekin banan-banan sistematikoki hitz egiteko saioak dira. Asmoa: guztiek in egotea da, eta hori segurtatzen dugu, dena den beharrek agintzen dute.

Ikasturte hasieran ikasle berriek dute lehentasuna; eta gero, informe eta gurasoen elkarriketa garaian, komeni da ikasle bakoitzari irakasleok bere ikas-prozesuaz egiten dugun balorazioa transmititzea.

Haur Hezkuntzan ez dugu ordutegi bereizirik ezartzen, Lehen Hezkuntzan, aldiz, asteen behin, irakasleak libre duen ordubete ezarri eta ikasleei informatzen die, hauek ere bilera eskatzeko aukera izan dezaten.

### Haur Hezkuntza

Garatu beharreko GAITASUNAK	Gaiak	materiala
1.- Haurrak ingurukoengandik bestelakoa dala ikustea eta nork bere buruaren irudia benetakoa eta positiboa eratzea, autoestimuko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak gara ditzan.	<b>2urte</b> 1.- Norberaren gorputzaren eta besteen gorputzaren zenbait ezaugarri aztertzea, gero eta hobeto ezagutzea eta haiek identifikatzea. <b>3,4,5, urte</b> 1.- Norberaren gorputza aztertzea eta ezagutzea. Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak identifikatzea, bai eta ingurukoekin alderatuz dituzten aldeak eta antzekotasunak ere.	Ipuinak Filmak Jolasak



2.- Beharrak, sentimenduak, emozioak edo lehentasunak identifikatzea, horiek adierazteko, menderatzeko eta ingurukoei jakinarazteko gero eta gaitasun handiagoa izan dezan; eta besteenak identifikatzea eta errespetatzea.	<b>2 Urte</b> 2.- Norberaren gorputzaren irudia eta nortasuna gero eta hobeto eraikitzea eta onartzea. <b>3,4,5 Urte</b> 2.- Norberaren ezaugarriak balioesten eta onartzen joatea, bai eta norberaren aukeratak eta mugak ere. Norberaren gaitasunean eta aukeretan konfiantza izatea.	Ipuinak Filmak Jolasak
3.- Errespetuzko, laguntzako eta elkarlanerako jarrerak eta ohiturak garatzea, bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko; eta mendetasun edo nagusitasun jarrerarik ez izatea	<b>2urte</b> 3.- Sentimenduak, emozioak, lehentasunak eta norberaren eta besteen interesak adieraztea, identifikatzea eta arautzen hastea. Enpatia jarrerak izaten hastea. <b>3,4,5 urte</b> 3.- Inguruko nortasuna eta ezaugarriak onartzea, aldeak errespetatzea eta jarrera diskriminatzaileak ez izatea.	Ipuinak Filmak Jolasak  Lagunekin baratzean.

## 1.ZIKLOA

Garatu beharreko GAITASUNAK	Gaiak	materiala
Ikasten ikasteko gaitasuna	adimena: <ul style="list-style-type: none"><li>ikasteko ditudan zailtasunak gainditzen ditut.</li><li>Taldetan hitz egiten ikasten dut.</li><li>Ikasitakoa nire arazoak konpontzeko erabiltzen dut.</li></ul>	Lagunekin baratzean
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"><li>Eskubideak eta betebeharrak ulertzea.</li><li>Nortasuna: Nire iritzia adierazten dut. Nire gorputza den bezala onartzen dut. Nire burua zaindu eta ohitura osasungarriak...zoriontsu sentitzen naiz.</li><li>Taldeko garapena eta egokitzapena.</li></ul>	Tutoretza lehen hezkuntzan :laguntzeko eskuliburua



	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Autonomia.</li></ul>	
Gizarte eta hiritar gaitasunak.	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Arauak egitea eta betetzea.</li><li>▪ Bizikidetzatza: Gatazkak konpontzea. Besteak onartzen ditut. Harreman positiboak sortzen ikastea.</li></ul>	

## 2.ZIKLOA

Garatu beharreko GAITASUNA	Gaiak	materiala
Ikasten ikasteko gaitasuna	adimena: <ul style="list-style-type: none"><li>▪ ikasteko ditudan zailtasunak gainditzen ditut.</li><li>▪ Taldeetan hitz egiten ikasten dut.</li><li>▪ Ikasitakoa nire arazoak konpontzeko erabiltzen dut.</li></ul>	Bizitzarako gaitasunak eta balioak 3. Bizikidetzarako gaitasunak eta balioak 4.
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Eskubideak eta betebeharrak ulertzea.</li><li>▪ Nortasuna: Nire iritzia adierazten dut. Nire gorputza den bezala onartzen dut. Nire burua zaindu eta ohitura osasungarriak...zoriontsu sentitzen naiz.</li><li>▪ Taldeko garapena eta egokitzapena.</li><li>▪ Autonomia.</li></ul>	Bizitzarako gaitasunak eta balioak 3. Bizikidetzarako gaitasunak eta balioak 4. Tutoretza Lehen Hezkuntza Laguntzeko eskuliburua.3-4.maila.
Gizarte eta hiritar gaitasunak.	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Arauak egitea eta betetzea.</li><li>▪ Bizikidetzatza: Gatazkak konpontzea. Besteak onartzen ditut. Harreman positiboak sortzen ikastea.</li></ul>	

## 3.ZIKLOA

Garatu beharreko GAITASUNA	Gaiak	materiala
Ikasten ikasteko gaitasuna	<ul style="list-style-type: none"><li>▪</li></ul>	
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"><li>▪</li></ul>	
Gizarte eta hiritar gaitasunak.		